



**2018KO MARTXOAREN 23KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko martxoaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAZ ONARTUTAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren alkatezaren ebazpen bidez onartu diren bi kontratazio espedienteren berri ematen da. Bat, San Benito Ikastolaren kaldera gelaren eraberritu eta gas instalakuntza berria burutzeko kontratazio espedientea eta bi udal kiroldegiaren handitzearen 5.1 fasearen burutze proiektua idazteko kontratazio espedientea.

Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 20 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteetan dagoena, BERROGEITA HAMAİKA MILA LAUREHUN ETA HOGEİTA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEİTA HAMABOST ZETİMO (51.427,75 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 18-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 18-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 89,73 €ko diru laguntza ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %97 da.



- 18-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 78,65 €ko diru laguntza ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %52 da.
- 18-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza eta alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea, biak martxotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Elbarrituen garraioa.- Ordiziako Gureak tailerrerako garraioa ordaintzeko 2018 urterako diru laguntza ematea ondorengoei:

Eskatzailea Esped. zbkia.	Ematen zaiona hilean, abuztua izan ezik	Ematen zaiona urtean
18-17-01	36,41 €	400,51 €
18-16-02	36,41 €	400,51 €
18-16-03	36,41 €	400,51 €
18-16-04	36,41 €	400,51 €
18-16-05	36,41 €	400,51 €
DIRU LAGUNTZAK GUZTIRA.....		2.002,55 €

Udal zerga eta tasak ordaintzeko laguntzak.-

Onartutakoak:

Eskatzailea Esped. zbkia.	Eskatutako Zenbatekoa	Onartutako laguntza %koa	Ematen zaion zenbatekoa
18-16-01		100	442,05 €
18-16-02		50	190,59 €
18-16-03		50	147,83 €
18-16-04		100	389,22 €
18-16-06		100	354,76 €
18-16-07		100	301,28 €
18-16-08		50	235,46 €
18-16-09		75	255,46 €
18-16-11		100	320,04 €
DIRU LAGUNTZAK GUZTIRA.....			2.636,69 €

Onartu gabeak eta zergatia:

Eskatzailea Esped. zbkia.	Ukatzearen zergatia
18-16-05	Diru sarreren muga gainditzen du
18-16-10	Diru sarreren muga gainditzen du
18-16-12	Diru sarreren muga gainditzen du
18-16-13	Diru sarreren muga gainditzen du

Goierriko Karitas Elkarteari.- "Baratza" eta "Hizkuntza" proiektuak burutzeko 2.000 €ko diru laguntza ematea.



LAZKAOKO  
UDALA

Goierriko Karitas Elkarteari.- Pertsona bat gizarteratzeko prozesuan laguntzeko 810 € ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

